

Kultur ekosistemaz gogoeta eginez abiatu dute Bilbon Avignongo Foroa

65 kultur eragile batu dituzte Alondegian, hiriko kultur gintzaz gogoeta egin eta gaur abiatuko diren hitzaldiei atariko egiteko

Besteak beste, Sassen, Colomina eta Acconci arituko dira hizlari gaur eta bihar

Iñigo Astiz Bilbo

Hiriko kultura sortzen dutenak jarri dituzte hiriko kultur sorkuntzari begira. Bertatik bertara eraman dute begia. Sortzaile, kultur programatzaile eta udal ordezkari, 65 partaide inguru elkartu zituen atzo Bilboko Alondegian RAW egitasmoak (Research Action Workshop), eta tailerren bidez egin zuten gogoeta. Gaur abian jarri den Avignongo Foroaren atariko ere izan zen atzokoa.

2007an sortuzen Avignonon Foroa, eta kultura eta ekonomia uztartu eta horren inguruan sor ditezkeen adar guztiak kontuan hartzea da asmoa. 2013an Europako Batasunaren laguntza bat jaso, eta zabaldu egin da eskaintza. Catalyse izeneko proiektuari esker hedatu da egitasmoa Avig-

nonera ez ezik, Alemaniako Es-sen hirira eta Bilbora ere. Bi aurpegi izan ditu deialdiak guztietan. Itzal handiko eragileak bil-tzen dituen foroa, batetik, eta lekuan lekuko kultur eragileak batzen dituen tailer eta etzabaida sorta, bestetik. Hiru hirietan berdin, eta, hala ere, bakoitzean berezi. Bilbon, adibidez, orain hiru hilabete hasi ziren lanean Ixiar Garcia artista eta Felix Martinez de Lezea biologoa, eta foroak Euskal Herrian izango duen leloa izan zuten abiapuntu: *Hiria kultur ekosistema gisa*. Biek abiatu zuten gogoeta, eta zirkulua zabalzen joan dira gero. Hasierako lana eragile talde zabalago bati aurkeztu, gaia landu, eta berriz ere talde zabalago bati aurkeztu, berriz gaia landu, eta hala, atzoko 80 partaide inguruko tailerretara



Bilboko kultur ekosistema izan zuten atzo mintzagai RAW jardunaldietako parte hartzaileek. JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

heldu arte. Ez dira bakarrik aritu, ordea. Bilboko hainbat kultur eragile ere aritu da saioen gidari lanetan. «Oso aberatsa izan da esperientzia», egin du laburpena Fernando Perez Alondégiko kultur programazio arduradunak. «Eta espero dezagun gogoeta horiek guztiek hirian aldaketa edo nabardura positiboren bat eragingo dutela aurrerantzean».

Hiru gai izan dituzte ardatz go-goetarako Bilbon. Bat: arte hibridazioa. Bi: egindako akatsetatik ikasteko metodologia bat sortzea. Eta hiru: komunitate berriak gizar-arte eta arte praktiketan. Horiek izan zituzten atzo mintzagai, eta bihar, foroa amaitu aurreko azken saioan aurkeztuko dituzte ondorioak. Foroan parte hartuko duten 410 pertsonaren aurrean.

Foroaren bi aurpegi artean zubi moduko bat sortu nahi izan dute horrela, Perezek azaldu duenez.

Atzo tailerrek amaituta, gaur hasi eta bihar amaituko dira hitzaldiak foroan, eta, besteak beste, Gail Lord kultur aholkularia, Vito Acoconci artista, Saskia Sassen soziologoa, Beatriz Colomina pentasalaria eta Cristina Iglesias artistak izango dira hizlari.

Gail Dexter Lord • Museo planifikatzailea eta hainbat hiritako kultur programen diseinatzailea

«Guggenheimetik bada zer ikasi, baina problematikoa da kopiak egitea»

I. Astiz Bilbo

«Hiriaren profeta». Gehiegizkoa da *International Architecture & Design* aldizkariak Gail Dexter Lord-en lana deskribatzeko erabiltako titulua ziur aski, baina badu egia puntu bat ere. Kultur gintzak hiriak eraberritzeko duen garrantzia azpimarratu du maiz, eta Lord Cultural Resources enpresako lehendakaria da. Kultura aholkularitza enpresa garrantzitsuenetarikoa bat da berea, eta hainbat museoren eta hainbat hiriren kultur plangintza diseinatu du. Bilboko Guggenheimen azken bi plan estrategikoak prestatzen ari zuten, Londresko Tate museoan izan da aholkulari eta Chicagoko kultur programa diseinatu du. Gaur izango da Avignongo Foroan hizketan, Bilbon.

Hiritako kultur diseinua egiten laguntzea da zuen lan ildoetarikoa bat.

Zein dira diseinu horren gakoak?

Plana heltzen denerako kultura jadanik hor dagoela argi izatea da gako nagusietarikoa bat. Beti gertatzen da hori, eta kultur diseinatzailearen lana da jendeak garrantzia zeri ematen dion aurkitzea. Hori da gure filosofia, eta Stretforden (Ingalaterra) egin genuen lanak erakusten du hori argien. Lowry museo sortu genuen han, udalak biltegian zituen Laurence Stephen Lowry artistaren piezak abiapuntu hartuta. Hiri eraberritu nahian zebiltzan, eta Bilboko Guggenheimen aurretik mundu guztiak nahi zuten moduan, Sydneyko operaren moduko bat eraiki nahi zuten haiek ere. Hirian ez dago opera zaletasun handirik, ordea, eta ondoko hirietan ere badaude nahiko kontzertu areto. Lowryren lanak aurkitu genituen orduan, eta opera etxe bat sortzeko ideia artista ho-



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

rrri buruzko museo bilakatu genuen. Sekulako arrakasta izan du geroztik, eta hori izan daiteke bide hori gora egindako diseinuaren adibidea.

Sydneyko opera lehen, Guggenheim orain. Azken urteetan maiz egin dira gisa horretako eraikin sinbolikoak haien bidez hiria eraberritzeko xedez, baina ez dira beti ongi atera.

Mendebaldeko industria ekialdera doa. Ekoizpena ekialdera doa. Populazioa. Eta, bestetik, mundua gero eta gehiago urbanizatzen ari da. Urbanizazio horrek hiriak eraginkorrago bihurtzeko kezka piztu du, eta kultura da hori lortzeko tresnetarikoa bat. Kultur eraikinak bilaka daitezke sinbolo, baina eraikina sinbolo

gisa eraikiz gero, agian, ez du kulturalki funtzionatuko. Bilboko kasua berezia da. Eraikina hemen sinbolo bat da, bai, baina funtzionatzen du. Euskal Herrian nortasun berezia duzue, argi da, eta baduzue gaitasuna halako proiektuak martxan mantentzeko. Alondegia ere eraikin ikaragarria da. Gaztea da oraindik, baina sekulakoa da. Kontua da komunitate guztiek ez dituztela halako sinboloak martxan mantendu ahal izateko beharrezko osagaiak, eta orduan, halako eraikinak elefante zuri bilakatzeko dira.

Ispilu ona da Bilboko Guggenheim beste hiritzat?

Kopiatzea beti da problematikoa. Ideiak beti barrutik sortu behar dira, eta funtzionatu behar badute, haien inguruan egin behar da plangintza. Eta are gehiago orain, ekonomia oso nahasia dagoelako. Baina, era berean, oso ongi dago jendea Bilbora etorri, bertakoa ikusi, eta kultura serioago hartzen badu. Eraikinak ere eman dezake bultzada hiriaren beste gune batzuk indartzeko. Jendeak badu aukera Bilbora etorri eta ikasgai onak hartzeko, baina kopiak problematikoa dira beti.